



Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **osoko bilkurak, 2023ko abenduaren 14an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2024ko aurrekontua onartzea, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko abenduaren 11an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: 2024ko aurrekontua onartzea.

2023ko abenduaren 11n egindako ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta Kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

"1.- Oñatiko Udalaren 2024ko Aurrekontua: 4.saioa-Irizpena

Kontu-hartzaileak hartzen du hitza, eta bozketa-prozesuaren berri ematen du, bai Ogasun Batzordeko bilkurakoa eta baita Osoko Bilkurakoa ere azalduz.

Batzordekideen iritziz, gaia nahiko landua dago; Batzordeburuak eskatzen du Oñatiko Udaleko 2024ko Aurrekontuaren irizpena-ematearen prozesua abiatzeko:

Beraz, Ogasun Batzordeak honako irizpenak ematen ditu:

1.- Ekipamendu sozialetarako konpromisu-kreditua onartzea, zeina 2025eko ekitaldian gauzatuko den, zenbatekoa 926.752,95 €koa izanik.

Ogasun Batzordearen irizpena, ahobatez, aldekoa da.

2.- Emendakinak:

2-1.- Herribusaren hirugarren linea ezarri, Oñatitik San Prudentziora. 100.000 euro.
ZER DIRU-LERROTATIK hartu dirua? 5683 kode-zenbakia (2023): Jasangarritasunerako inbertsioak (150.000 euro).

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

2-2.- Proiektua egin Kalezaharreko azken atalaren urbanizazioa hobetzeko eta irisgarri egiteko, Kurtzekearaino. Exekuzio-proiektua idaztea da: 55.000 euro.
ZER DIRU-LERROTATIK hartuko da dirua? 5660 kode-zenbakia (2023): Irisgarritasun-lanak (300.000 euro)

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

2-3.- Segurtasuna hobetu Mojasoro-Aldakiño inguruko oinezko bidean (San Martinetik Natur Eskolara bitartean), ez dadin labangarri egon. 35.000 euro.
ZER DIRU-LERROTATIK hartu dirua? Asfaltatze-lanak (75.000 euro)

Diru-atal berriaren izena: Mojasoro-Aldakiño inguruko segurtasuna hobetzea:35.000 €.

Ogasun Batzordearen irizpena, ahobatez, aldekoa da.

2-4.- Konparaziozko azterketa egitea musika-eskola berria non kokatu erabakitzeko dauden aukeren artean. Azterketa-egitea: 15.000 euro.

ZER DIRU-LERROTATIK hartu dirua? 5696 kode-zenbakia: Hezkuntza-erakinetan inbertsioak (249.000).
Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

2-5.- Bizikidetzeta-Mahaia (Foroa) sortzea. 15.000 euro.

ZER DIRU-LERROTATIK hartu dirua? 1895 kode-zenbakia: Partaidetza. Kanpo-aholkularitza (41.000 euro).

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

2-6.- Arantzazuko komunak konpontzeko exekuzio-proiektua. 15.000 euro.

ZER DIRU-LERROTATIK hartu dirua? 5278 kode-zenbakia: Turismoko inbertsioak (15.000 euro) edo 1839 kode-zenbakia: Auzoetako inbertsioak (165.000 euro).

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, abstentzioa), aurkakoa da.

2-7.- Herritarrekin komunikazio digitala hobetzeko bi proposamen. 10.000 euro.

ZER DIRU-LERROTATIK hartuko da dirua? Next Generation Komunikazio digitala (90.000 euro)

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

2-8.- Kanpantxoko iturriaren egoera aztertu eta konpondu. 5.000 euro.

ZER DIRU-LERROTATIK hartuko da dirua? 5281 kode-zenbakia: Iturriak eta beste hiri-altzariak (10.000 euro).

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, aurka; EAJ, alde), aurkakoa da.

3.- Oñatiko Udalaren 2024ko Aurrekontu Orokorra

Ogasun Batzordearen irizpena, gehiengoz (EHBildu, alde; EAJ, abstentzioa), aldekoa da.”

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak dioena ikusita.

Udaleko idazkariaren 49/2023 txosten juridikoa dago espedientean, 2023/12/11koa, aplikatu beharreko legeria eta jarraitu beharreko prozedurari buruz.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- 2024ko aurrekontua onartzea, espedientean dagoen dokumentuaren arabera.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea onartutako aldaketa, hamabost egun baliodunetz, GAO-n iragarkia jarritz. Epe horretan, interesdunek aukera izango dute aldaketa aztertzeko eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkezteko. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamazioarik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.

HIRUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Konpromiso kreditua eta emendakinak banan banan bozkatu dira. Honakoa da emaitza, baina hasierako proposamena bere horretan mantentzen da:

Ekipamendu sozialetarako konpromisu-kreditua onartzea, 926.752,95 €koa.	Onartzen da: 16 alde (11 EH BILDU + 5 EAJ-PNV)
1. Emendakina: Herribusaren hirugarren linea ezarri.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)
2. Emendakina: Kalezaharreko azken atalaren urbanizazio proiektua.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)

3. Emendakina: Segurtasuna hobetu Mojasoro-Aldakiño inguruan.	Onartzen da: 16 alde (11 EH BILDU + 5 EAJ-PNV)
4. Emendakina: musika-eskola berriaren konparaziozko azterketa.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)
5. Emendakina: Bizikidetzeta-Mahaia (Foroa) sortzea.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)
6. Emendakina: Arantzazuko komunak konpontzeko proiektua.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)
7. Emendakina: Herritarrekin komunikazio digitala hobetzea.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)
8. Emendakina: Kanpantxoko iturriaren egoera aztertu eta konpondu.	Ez da onartzen: alde 5 (5 EAJ-PNV) eta aurka 11 (11 EH BILDU)

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. 2024ko aurrekontuaren proposamena onartu da. Aldeko botoak: 11 (11 EH BILDU). Abstentzioak: 5 (5 EAJ).

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

